

Begira



ULMA

2007ko iraila // 15 zk



ULMAko instalazio berriak inauguratu dira



aurrez aurre

**José Luis
Madinagoitia**
*ULMA Taldeko
lehendakari ohia*



ereportajea

ULMA Agrícola S. Coop;
*ULMA Taldeko
kooperatiba berria*

Aurkibidea

15 zk. • 2007ko iraila



3 > HIZPIDEA...: Ekintzailtza eta berrikuntza. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK**: ULMA Packagingek ABB Roboticsen saria eta errekonozimendua jaso du bere ibilbideagatik. ULMA Hormigón Polímero Construmat-07 azokan izan da. ULMA Forjak hitzarmena egin du PUBLIADKekin. ULMA Agrícolak 2 instalazio egin ditu Fuerteventurako Lajita Oasis Park-en. **14 > AURREZ AURRE**: José Luis Madinagoitia: ULMA Taldeko lehendakari ohia. **16 > ERREPORTAJEA**: ULMAko instalazio berriak inauguratu dira. **20 > ERREPORTAJEA**: ULMAko fatxada aireztatuak: sektorearen abangoardian. **22 > ALBISTE OSASUNGARRIAK**: Sorbalda mindua: maiztasuna, kausak eta tratamendua. **23 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK**: ULMAko triatletak Alemaniako Rotheko Ironmanean. **24 > ERREPORTAJEA**: ULMA Agrícola S.Coop., ULMA Taldeko kooperatiba berria. **26 > ZER DERITZOSU?** **28 > ASTEBURURAKO TXANGOAK**: Morutegi Gaztelua: Dorrea Lautadan. **29 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK**.

Joan den ekainean, gure instalazio berrien inaugurazioa zela eta, zientzialariak, politikariak, teknologoak, bezeroak, laguntzaileak eta beste hainbat lagun izan genituen bisitan. Horiek guztiak benetako babes eta errekonozimendu zintzoa erakutsi ziguten lortutakoagatik eta gure enpresa proiektua garatzean eta finkatzean etorkizunaren aldeko apustua egiteagatik.

Packagingeko Zentro Teknologikoa, Negozio Berriak Sustatzeko Zentroa eta Pertsonak Prestatzeko eta Gaitzeko Zentroa inauguratuz ULMA etorkizunaren alde egiten ari denaren adibide garbia eman genuen. Teknologiaren, ekintzailetzaren eta Taldeko pertsonen gaitasunak hobetzearen aldeko apustua. Packagingeko Zentro Teknologikoa 5.000 metro koadroko azalera dauka eraikita, eta gaur egun 50 pertsona inguruk dihardute zaintza teknologikoa egiten, teknologia berriak erakar-

berri bat ere, elementu ukiezinetan funtsatuta, horien artean daudelarik sormena, ideiak, ekintzailetza eta berrikuntza.

Merkatuan oso-oso azkar aldatzen dira gauzak, azaleratzen ari diren merkatuetan lehiakide berriak ageri dira, eta egoera horrek industri eta produktu sektore helduz osatutako egitura bat dagoela erakusten du; horrenbestez, gure gizarteak aurrera egitea nahi badugu, sektore eta produktu horien ordeztu beste aurreratuago batzuk behar ditugu, berritzaileagoak, eduki teknologiko eta balio erantsi handiagoak. Horrek guztiak oso ingurune dinamiko behar du, agertzen diren aukerei azkar erantzuteko gaitasunarekin, horrela gertatu eztean, aukera horiek betiko galduko baitira. Giro horretan hain zuzen ere, ekintzailetzak espero diren emaitzak sortzeko gauza izan behar du.

eta helburuei uko egitea. Horrek gure ondoeza murriztea ekar badezake ere, sortzeko dugun energia ere murrizten du. Bada beste modu bat, eta are aztoragarriagoa izan daiteke: ez dugu daukagun errealitateari buruzko egia esaten. Erraza da esatea "gauzak ez doaz hain oker, aurrera aterako gara". Baina, dagoen errealitatea faltsutzen den heinean, errealitate hori aldatzeko erabil daitekeen energia sortzailea ere indargabetu egiten da. Sortzeko prozesuan askatzen den energia ez da soilik lortzen ikuspegi batekiko leial izanik, baizik eta baita ere benetan dagoenari buruzko egia esanik. Arriskutsua da, baina emaitzak lortzeko modu bakarra da. Konformismoaren aurka borrokatu behar da, eta hori da tentazioarik indartsuena. Errozkaz beteriko etorkizuna datorkigu, eta guk konkistatu egin behar dugu.



Ekintzailetza eta berrikuntza

TXOMIN GARCÍA. ULMA Taldeko Zuzendari Nagusia.

tzen eta garatzen eta berrikuntzako proiektuak garatzen, eta, horren guztiaren ondorioz, packagingaren sektorean oinarri teknologikoko jardura berriak martxan jartzen. Taldearen Jardura Berriak Sustatzeko Zentroak beste 2.200 metro koadro ditu, eta ULMA Taldearen jardura eta negozio berrien hazitegi eta dinamizatzaile izan nahi du. Pertsonak Prestatzeko eta Gaitzeko Zentroaren instalazioak prestakuntzara eta ikaskuntzara zuzendutako teknologiarik aurreratuenekin hornituta daude, eta 700 metro koadroko azalera batean kokatu dira.

Edozein apustu berritzailek, are gehiago hau bezalako batek, espiritu ekintzaile bizia behar du eusteko, eta horrek berritzeko ahalegin handiak eskatzen ditu. Enpresa eta jardura berriak sortzerakoan arrakasta izango badugu, hein handi batean, jokatu behar dugun ingurunea interpretatzeko moduarekin asmatu behar dugu, baita horren arauetara egokitzekeo dugun ahalmenarekin ere. Aldaketa handiko fase batean murgilduta gaude, eta dagoeneko hasiak gaude ondorioak argi eta garbi antzematen. Aldaketa hori, bere alderdirik positiboaren artean, enpresa eredu berriak bultzatzen ari da, baita gizarte

Erakundeek eguneroko arazoak konpondu eta emaitza berriak sortu behar dituzte. Haatik, zerbait berria eta probetxagarria sortu beharrez, eginkizun nagusia arazoak konpontzea besterik ez bada –banaka zein taldeka–, zaila izango da helburuaren zentzuari eustea. Eta helburuaren zentzu sakonik gabe, nekez lortuko dira errozkaz beteriko garaiotan aurrera egiteko behar diren energia, grina, konpromisoa eta tema mantentzea. Zoritxarrez, arazoak konpontzea da beren helburua ahaztu eta etorkizuneko ikuspegiak ez duten erakundeek eginkizun nagusia.

Finean, sortu nahi dugun zerbait irudikatzen dugunean, existitzea nahi dugun zerbait irudikatzen ari gara; etorkizuneko ikuspegia da gure aurrean ikusten dugunari buruz, hau da, errealitateari buruz. Ikuspegiaren eta errealitatearen arteko distantzia horrek tentsioa sortzen du, eta tentsio hori gure ikuspegia gauzatzeko ekintzei ekinez bidera daiteke. Ikuspegiaren eta errealitatearen arteko aldea murriztea da sormenaren esentzia; ideia bikainak orduan bihurtzen dira errealitate. Tentsioa arintzeko modu bat gure benetako ikuspegia txikitzea izan daiteke, soilik xede errealista bat lortzeko gure amets

Inaugurazio ekitaldia joan zen, baina espiritu ekintzailez aurrera egiteko gure bultzada dago. Orain guri dagokigu ULMA Taldean kokatzea, gero eta mundu lehiakor eta globalizatuagoak eskatzen dituen aldaketak bideratzeko. Guztion ahaleginaz eta ilusioaz errazago izango da arrakastaren bidean aurrera egitea. Ez gara munduko enpresarik onena, hutsak dauzkagu, ez dugu goia jo eta, beraz, hobetu dezakegu, baina inork ez dezala zalantzarik izan buru-belarri borrokatuko garela datozen belaunaldiei eta, oro har gizarteari, guk aurkitu genuen baino kooperatiba Hobeaz uzteko.

“Aldaketa handiko garai honek enpresa eredu berriak bultzatzen ditu”

> **Albisteak eta gaur egungo gaiak**



ULMA Hormigón Polímero

ULMA HORMIGÓN POLÍMERO NEGOZIOAK SOLUZIO BEREZIA AURKEZTU DU BURGOSEN ERAIKUNTZA LERROAREN BIDEZ.

Burgosko Aranda de Duero herrian, ULMA Hormigón Polímerok soluzio berezi bat egin du Promoaranda Eraikinean, leiho-moldura multzo batean oinarrituta, obra horretarako propio diseinatuta. Obra zuzendari-tzak eraikina bereiztea eta pertsonalizatzea nahi zuen eta, ULMA Hormigón Polímeroko Departamentu Teknikoarekin batera, helburu horretarako behar ziren piezak diseinatu zituzten. Proiektuan berez zegokion materiala harri artifiziala zen, baina polimero hormigoiak hainbat abantaila eskaintzen ditu kalitate, moldakortasun eta erresistentziari dagokienez eta, gainera, materialak gehiago irauten du, ia batere urik ez xurgatzea bermatzen baitu. Horri guztiari piezen formak gehituta, ULMAk azkenean prezio lehiakorrekin kokatzea lortu zuen eta, ondorioz, bezeroak hormigoi polimeroak alde egitea erabaki zuen.

ULMA Packaging

ULMA Packagingek ABB Roboticsen saria eta errekonozimendua jaso du bere ibilbideagatik

Joan den ekainaren 14an, Elikagai Freskoak Kontserbatzeari eta Ontziratzeari buruzko lehenengo Jardunaldiarekin bat eginda, ULMA Packaging negozioak Espainian entregatutako ABBren 13.000. robotaren saria jaso zuen. Saria ULMA Packagingeko I+G+b unitatea den UPTCKo zuzendari gerente Fran Etxanizek jaso zuen, Jose Ramon Garcia-Monton Garcia-Baqueroren eskutik, zeina Asea Brown Boveriko (ABB) Espainiako Robotikako Dibisioko zuzendaria den. Packagingeko Ingeniaritzaren jardura ULMA Packagingen sustatzen ari den negozio berria da, eta horrek integratu du, beste ekipamendu batzuen artean, ABBko robotika; ondorioz, manipulazio automatikorako neurria egindako soluzioak eskaintzen ditu, ontziratze prozesuaren aurretik zein ondoren erabiltzeko, baita ere ondoren ontziak berak kokatzeko prozesurako. Ingeniaritzaren sustapen berri honek ULMA Packagingeko Zentro Teknologikoaren babesa dauka, izan ere, ikerketa eta garapen lerro berri bat ireki du Robotikako eta Ikusmen Artifizialeko teknologia altuko sistemen inguruan, etorkizun

hurbilean ontziratze eta enbalatzeko prozesuen automatizazioan horiek izango duten garrantzia kontuan hartuta.



ULMA Construcción

BRASILGO BEZEROEK ULMA CONSTRUCCIÓN BISITATU DUTE.

Maiatzaren 27tik ekainaren 2ra Brasildik etorritako espedizio batek ULMA Construcción bisitatu zuen. Taldea filial brasildarraren hainbat bezerok osatuta zegoen, eta horien artean nabarmenduko dugu Caenge S/A Construção, Administração e Engenharia enpresa. Aipatuko enpresako Obra Kontratazioko gerente Engº Claudio Marquesek bisitaren oroitzapena utzi nahi izan zuen eta, xede horrekin, ULMAk bere obra guztietan emandako zerbitzuak eskertu zituen. Eskerrona berresteko, Caenge S/Aren katalogo prestigiosoa izenpetu eta ULMA Construccióni eman zion, irudian ikus daitekeenez.



ULMA Agrícola



ULMA AGRÍCOLAK MAROKON OLIBONDOAK HAZTEKO PROIEKTU BAT EGIN DU.

ULMA Agrícola Marokon egin duen proiektuak 2.500 m²-ko azalera estalia du, eta G9 modeloko kapera anitzeko egitura gotikoa dauka. Instalazioa osatzen duten 45 nabeak olibondoen landare txikiak hazteko klimarik onena sortzeko hornitu dira. Nabe guztietan Cooling sistemak dituzte, pantaila termikoak eta mahai mugigarri berotuak. Olibondoa larreko espeziea da, erraz hazten da eta izozteak ongi jasaten ditu -10°C-ko tenperatura gainditzen ez bada. Oso ongi toleratzen du gazitasuna, erresistentea da lehortearekiko eta erroen mailan jarritako berokuntzak hazten laguntzen dio.

ULMA Handling Systems

ULMA Handling Systems-ek ingurumen kudeaketaren sistema egiaztatu du

Joan den ekainean ULMA Handling Systemsek ingurumena kudeatzeko sistema ezartzeko prozesua amaitu zuen, izan ere ISO 14001:2004 ziurtagiria lortu zuen, Lloyd's REGISTER QUALITY ASSURANCE (LRQA) enpresak egiaztatuta. ULMA Handling Systems negozioan ingurumena kudeatzeko ezarritako ereduak esan nahi du, alde batetik, legeak ingurumenari buruz agintzen duena betetze hutsetik haratago joateko konpromisoa duela eta, bestetik, ULMA Handling Systemsen jarduerak sortzen duen eragina identifikatu eta ebaluatzen duela. Azpimarratzekoa da ULMA Handling Systems lan handia egiten ari dela merkatuan ezartzen dituen instalazio, sistema eta produktu berriak ingurumena kontuan hartuta diseinatzeko direla, bizitzaren fase guztietan ingurumena errespetatuko duten produktuak direla bermatzeko. Gainera, interes taldeak ere pixkana eginkizun horretan sartzen ari direla nabarmendu behar da (hornitzaileak, azpikontrata...), ULMA Handling Systems negozioan ezarritako sistema-



ren estandar bereberri erantzun diezaieten. Kalitatearen, laneko arriskuen prebentzioaren eta ingurumenaren aldagaiak ULMA Handling Systems negozioaren antolamendua eta prozesuak kudeatzeko sisteman integratu dira, eta horrek lagundu egin du gauzak egiteko modu partikular bat garatzen: bezeroak guztiz gogobetetzera orientatutako estandarrak eta sistematikak ezarri eta hedatu dira, prozesuak eta jarduerak gauzatu eta etengabe hobetuz. Egikera hori 2003. urtean ISO 9001:00 araua ezarri eta egiaztatu zenean indartu zen, eta horren atzetik etorri zen Laneko Arriskuen Prebentzioa kudeatzeko sistemaren egiaztakia, OHSAS 18:001 arauarekin; azkenik, horri guztiari ingurumena kudeatzeari buruzko ISO 14:001 ziurtagiria gehitu behar zaio.

ULMA Forja

ISO 14001. ULMA Forjak ingurumena kudeatzeko sistema aztertzen duten ISO 14001 espezifikazioak berrikusteko auditoria gairatu du, baita TÜV espezifikazioena ere, zinean presio bidezko ontzietarako produktuen fabrikatzaileen kalitate sistema biltzen den. Zalantzarik gabe, oso albiste ona da ULMA Forjarentzat kalitatearen alde egiten ari den apustuan. Azpimarratu behar da atal hau funtsezkoa dela Negozioarentzat, azaleratzen ari diren herrialdeetako fabrikatzaileak egoera estutzen ari direlako, sektorean onartu gabeko produktuak sartzen dituztelarik.



> Albisteak eta gaur egungo gaiak



ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA ORGA JASOTZAILEAK NEGOZIOAK SOLUZIORIK ONENAK ERAKUTSI ZITUEN, MAIATZAREN 14TIK 19RA EGINDAKO CONSTRUMAT AZOKAN, MATERIAL ASTUNEN KARGA LUZEETARAKO, HORIEN ARTEAN ALTZAIRUA, HORMIGOIA ETA BURDINA, ZEIN MATERIAL ARINETARAKO, HORIEN ARTEAN ALUMINIOA, PLASTIKOA... Zehazki, eraikuntzaren sektorera zuzendutako hiru orga erakutsi ziren: MQ25 2121 Multidirekzional Elektrikoa, 3050 serieko 4-Caminos Diesel DQ40D Trizikloa eta 4-Caminos Pilatzaile Elektrikoa. Izandako bisita ugari HUBTEX markako orgek interes handia sortzen dutela erakutsi zuten, eta gama horrek eskaintzen dituen abantailak in situ probatzeko aprobetxatu ahal izan zuten: trakzioa, gurpil guztiei eragiten dien direkzioa eta orgaren mugigarritasuna noranzko guzti-guztietan.

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Handling Systems

ULMA, erreferentzia logistikaren nazioarteko aretoan



ULMA Orga Jasotzaileak eta ULMA Handling Systems ekainean Bartzelonan egindako azken Logistikaren Nazioarteko Aretoran izan ziren. Edizio honetan ULMA Orga Jasotzaileak negozioak aurkeztutako nobedade nagusiak RBN Bilkorren gama berria, FBKRT PAC Korrante Alternoko Triziklo Orga Elektrikoen modelo berria eta, azkenik, 8 - 16 tonako Tonaje Handiko Diesel Orga berria izan ziren. ULMA Handling Systemsen erakusleihoan, berriz, Automatikoki Biltegitratzeko eta Eskariak Prestatzeko sistemen azken nobedadeak erakutsi ziren, mota guztietako kargak manipulatzeko eta biltegitratzeko diseinatuak. Gainera, logistikako zerbitzu integrala eskaintzeko helburuarekin, ULMA Handling Systemseko Supply Chain Software dibisioak kate logistikorako Informazio Sistema berria aurkeztu zuen, IK LOG izenarekin. Berrikuntzak, Esperientziak eta Teknologiak, hiru kontzeptu horiek laburbiltzen dute ULMAK sektore logistikoa duen errekonozimendua, eta horri esker da erreferentziazko etxea Logistikako Sistema eta Soluzioetan.

BA AL ZENEKIEN...

Mekanizatze lantegia handitzeko obren garapenak espazio falta ekarri duela eta, ULMA Forjak autobus zerbitzua abiarazi du Oñatiko langileentzat, lanaldi zatiua dutenentzat zein txandaka dabiltzanentzat. Adierazi behar da ekimenak asebetetze maila handia sortu duela. Berez, zerbitzuak irailera arte iraungo du, eta esperantza dago Udalak eta bertako enpresek garatu behar duten Lanbus zerbitzuarekin lotu ahal izango dela. Halaber, hainbat langileren artean autoa partekatzea bultzatuko duen sistema bat abiarazi da; horren arabera, sarreratik hurbil aparkalekua bermatuko zaie.

ULMA Taldea

Prestakuntzarako egitura berria ULMA Taldeko bazkide eta langileentzat

Joan den ekainean, ULMA Taldearen Oñatiko instalazio berrien inaugurazioarekin batera, Taldeak bere Negozioen zerbitzura Prestakuntzarako jarri duen azpiegitura berria ere aurkeztu zen, bazkideak eta langileak trebatzeko eta garatzeko helburuarekin. Ikasgelak ikus-entzunezkoen arloko azken teknologiekin hornituta daude, eta aplikazio eta baliabide desberdinak eskaintzen dituzte prestakuntzaren beharren eta tipologiaren arabera. Horrenbestez, esate baterako, Gela Multimedia dago aplikazio informatikoen prestakuntza emateko, 16 pertsona eta irakasleentzako lekuarekin. Autoprestakuntzarako gela bat ere bada, 10 leku independenterekin, banaka hizkuntzak ikasteko. Prestakuntza multidiziplinarrerako gela bat ere bada, 40 laguntzat, eta hainbeste jenderentzat behar ez bada bi gela egin daitezke, 20 pertsonentzat bakoitza eta irakasleentzako postuarekin. Bestelako hainbat areto ere aurki daitezke, pantaila interaktiboz eta arbel digitaletz hornituta, 6 eta 10 arteko laguntzako lekuarekin. Ikasgelak antolatzeko aplikazio informatiko bat jarri da martxan, bakoitzerako eskabidea eta erreserba gestionatzen duena. Aplikazioa erabiltzeko ULMA Taldearen ataria erabili behar da, orri honetan: <http://portalde.ulma.com>



ULMA Construcción



AIDICOK SEGURTASUN SARETARAKO CV EUSKARRI MARKAREN ZIURTAGIRIA EMAN DIO ULMA CONSTRUCCIÓN.

2007ko martxoaren 13an AIDICOK CV marka erabiltzeko eskubidea eman zion ULMA Construcción negozioari, eta horrek esan nahi du T Segurtasun Sistemako sarerako eta B sarerako euskarria egiaztatzen duela gure Jarraibideen Eskuliburuaren arabera, 6,10 metroko uhalarekin. Maiatzaren 17an CONSTRUMAT azken azokaren inguruan Montjuïceko Biltzar Jauregian egindako ekitaldian, Erakunde Ziurtagizalea den AIDICOKo lehendakari Ramón Congost Vallés jaunak ziurtagiria egiaztatzen duen plaka eman zion Ekialdeko zuzendari erregional Jordi Gimeno jaunari, zeinak ekitaldian ULMA Construcción ordezkatu zuen. Ziurtagiriak epemuga bete arte balioko du (2008/07/28), betiere ziurtagiria kentzen ez bada edo uko egiten ez bazaio fabrikazioaren baldintzak eta produkzioaren kontrola nabarmen aldatu direlako.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímero Construmat-07 azokan izan da


ULMA Hormigón Polímero Bartzelonan maiatzaren 14tik 19ra egin den Construmat 07 azokaren azken edizioan presente egon da. Bertan, Kanalizazio, Eraikuntza eta Fatxada Aireztatuen Sistemetako produktu berriak aurkeztu zituen, 2 erakusmahai desberdinetan, eta oso balorazio positiboa egin zuen erakusketan izandako presentziari dagokionez: nabarmendu duenez, oso kontaktu kualifikatuak egin ahal izan ditu, eta horietatik truke komertzial garrantzitsuak lortzea espero du. 7. Pabiloiko sarbidean zegoen erakusmahaian Eraikuntzako lerroak zein Kanalizaziokoak beren produktuen nobedadeak erakutsi zituzten. Kanalizazioaren gunean %2,5eko malda duten kanal berriak azpimarra daitezke, eta horiek batera HYDRO kanalen gama berria. Eraikuntzaren esparruan, beriz, Soluzio Integral berriak aurkeztu ziren, eta horien ondoan estetika modernoaren aplikazioak erakutsi ziren forma eta kolore berezietara zuzenduta. Fatxada Aireztatuen lerroak erakusmahai propioa izan zuen, 6. Pabiloiko



sarbidean, eta bere sistema aurkeztu zuen, zeina, estetikoak izateaz gain, praktikoa den. Sistemak ingurumen iraunkortasunari buruzko baldintzak hartzen ditu kontuan, eta arkitekturen edertasuna, konforta eta efizientzia elkartzen dituen espazio bat eskaintzen dio. Plaka egitura berriak aurkeztu dira, grekak, uhintxoak, kolore pertsonalizatuak eta beste hainbat elementu berezi dituztenak; horien artean protagonista plaka "neobarrokoa" da, Construmateko bi erakusmahaietarako bereziki garatua.



ULMA Hormigón Polímero



CEIP El Tren de Fort Pienc ikastetxearen eraikina, ULMA Hormigón Polímeroren fatxada aireztatuaren sistemaz estalia, 2007ko Katalunia Eraikuntza sarietarako aukeratu dute

Fort Piencoko Trena izeneko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea Bartzelonako Ensanchen dago, eta 2007ko Katalunia Eraikuntza sarietarako aukeratu dute, Eraikuntzako Berrikuntzaren kategorian. Eraikinaren berrikuntza nagusia, hain zuzen ere, ULMA Hormigón Polímeroren fatxada aireztatua da. Halaber, ULMAk proiektuan parte hartzeko instalatzeko xafiak jada zulatuta daudela aurkeztu ditu, Eraikuntza lerroaren bidez. Fatxada Aireztatuaren sistemak, egitura lauaz gainera, egitura ildaskatu berezi bat erabili da, obra honetarako bereziki diseinatuak. Fatxaden zerbitzuak eskaintzen duen zerbitzu integralari esker proiektu pertsonalizatua egin daiteke, kasu bakoitzean dagokion soluzioa diseinatzeko. Proiektuaren egileak Felip Pich-Aguilera eta Teresa Batlle izan dira, eta argia

iragaziz pasatzen utziko zuen pieza bat behar zuten, indar gutxiagorekin sar dadin. Proiektu taldeak eginkizun hori betetzen zuen plaka zulatatu batzuk diseinatu zituen. Jarritako xaflei dagokienez, funtzio estetikoak betetzeaz, eguzkitik babesteaz eta argia eta airea pasatzen uzteaz gain, arkitektoen beste helburu bat ere betezea lortu da, eta hori zen eraikinaren beharrak material berdina erabiliz ase ahal izatea, uniformetasuna mantendu ahal izateko. Bartzelonako Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen Elkargoak (CAATB) emandako sarien finalistak uztailean zehar ezagutaraziko dira. Aurreko edizioan bezala, aukeraturako hautagaitza guztiak argitalpen batera bilduko dira, eta Katalunia osoan barrena ibiliko den erakusketa ibiltari batean erakutsiko dira.



ULMA Handling Systems

GUREAN, ULMA HANDLING SYSTEMS-EN BARNE ALDIZKARI BERRIA. ULMA Handling Systems negozioko GUREAN aldizkariaren lehenengo zenbakia atera du: aldizkaria barne argitalpena da, eta bere helburua negozioren jarduerari lotutako alderdiei buruzko informazioa hedatzea da. GUREAN barne komunikaziorako bide berri gisa aurkeztu da, negozioren arlo desberdinetako kideek egina da osorik, eta ULMA Handling Systemseko bazkideei eta langileei zuzenduta dago. Ildo horretan, aldizkariak komunikazioa bultzatzea eta negozioren arlo bakoitzean garatzen diren alderdi garrantzitsu eta berritzaileei buruzko ezagutza handitzea nahi du. Lehendabiziko zenbakia apirilean atera zen argitaratu, negozioko zuzendari gerentek ULMA Handling Systemseko kolektibo osoari eman zion informazio hitzaldiarekin bat eginda. Aurrerantzean, GUREAN lau hilean behin plazaratuko da, betiere negozioren hitzaldi informatiboekin batera, barne komunikaziorako bi bideak indartzeko eta osatzeko helburuarekin.

ULMA Forja

ULMA Forjak hitzarmena egin du PUBLIADKekin

Salmentak ingeniartzen bidez egiteko kanal berria atera eta, Negozioan erronka berriak sortu direnez, hitzarmena egin da PUBLIADK enpresarekin, negozioaren komunikazio integrala gara dezan. Bezero potentzial nagusiak ingeniartza enpresa ospetsuak direlarik, salmenta kanal berrian pentsatu da, ULMA Forjaren gaur egungo irudia sektorean asko ezagutzen eta baloratzen bada ere, jauzi kualitatibo horrek negozioaren kanpo komunikazioan ere jauzi kualitatiboa behar duela. Hitzarmena egin izanak ULMA Forjaren irudi globala definitzea ekarriko du, hau da, aretoak, bisiten protokoloa, merchandisinga edota enpresako departamentu desberdinek komunikazioaren inguruan landu beharreko ekintzak moldatzea. Finean, negozioaren irudia kanpoan bultzatzeaz gain, komunikazioa Negozioaren maila guztietan homogeneizatuko dela bermatu nahi da, barrura begira zein kanpora begira.



ULMA Construcción



ULMA TXILEKO EXPONOR AZOKAN. Txileko ULMA Construcción Latinoamerikan meatzaritzaren inguruan egiten den azokarik garrantzitsuenean izan zen, EXPONOR izenekoan (Latinoamerikako Meatzaritzako Erakusketa Internazionalaren XII. Edizioa). Azoka Txileko iparraldeko Antofagasta eskualdean egin zen, eta 16 herrialdetako 460 enpresak erakutsi zituzten beren produktuak. ULMAk 42 m²-ko stand bat izan zuen, eta helburuko publikoak interes handia erakutsi zuen, enpresa Txileko iparraldeko aldean ordezkari bat irekitzekotan baitago.

ULMA Orga Jasotzaileak

24V Korrante Alternoko Triziklo Orga Elektrikoa merkaturatu da

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak 24V Korrante Alternoko Triziklo Orga Elektriko berria merkaturatu du. Modelo berriaren bidez, ULMAk hobetu egin du MITSUBISHI produktuen gama, eta merkatuari azken teknologiako Orga Jasotzaileak eskaintzen dizkio. FBKRT PAC berria diseinu ultratrinkoagatik eta erabilgarritasun handiagatik eta, ondorioz, modelo hau ezin hobea da espazio txikiarako, esaterako, biltegi barrurako. 24 voltetako bateriaz eta AC motor eraginkorraz horniturik, aukera bikaina da orga jasotzaile merke, produktibo eta ekologikoa behar bada, energi kontsumoa optimizatzen duelako, potentzia eta kontrol handia duelako eta kostuak txikiagoak direlako. Gainera, modeloak prestazio leun, isil eta indartsuak dauzka, eta egonkortasun handia; ondorioz, gidariari konforta, segurtasuna eta ergonomia handia segurtatzen dio. Hori guztia MITSUBISHI marka ezagunaren garantiak babestuta.



ULMA Construcción 2007ko CONSTRUMAT azokan

ULMA Construcción CONSTRUMAT azokan izan zen berriro ere, 2007ko maiatzaren 14tik 19ra Bartzelonan egin zen 15. edizioan. Azoka hori eraikuntza sektorearen erreferentziatzko azoka nazionala da. Negozioak 401 m²-ko estand batean produktu hauek erakutsi zituen: ORMA, ENKOFORM V-100, MESA VR, CC-4, RAPID, RECUB, LGR eta CLR enkobratuak eta BRIO, DORPA eta BRIO-ST aldarmioak. Aurtengo edizioan aurkeztu diren nobedade nagusiak izan dira 3,3 x 2,4 neurriko ORMA panel berria, LGR zutabeetarako enkofratua eta BRIO-ST fatxadetarako egonkortzaillea. Partaidetza horrek sektoreko enpresekin eta profesionalekin kontaktuak egitea eta bezero berriekin harremanetan jartzea ekarri du, baita urtean zehar lan egin ohi den erabiltzaileak agurtu ahal izatea ere.



ULMA Forja

LANKIDETZA ULMA FORJAREN ETA SAUDI ARAMCOREN ARTEAN. Joan den ekainean energiaren inguruko Saudi Aramco enpresak antolatutako jardunaldi batzuk egin dira Bahreinen, materialak espezifikatzeko sistemak berrikusteko helburuarekin, ingeniariak hori presente dagoen proiektu ugarietan aplikatu ahal izateko. ULMA Forjak presentzia aktiboa izan zuen kalitateko eta komertzialeko arloko ordezkariekin egindako bileran, eta aipatu behar da aipatu bileran sektoreko fabrikatzaile nagusiek parte hartu zutela. Saudi Aramco Saudi Arabiaren enpresa estatala da, 50.000 langile baino gehiago ditu, eta petrolio atera eta fintzeko munduko enpresa nagusietakoa izateaz gain, eskualdeko gas baliabideen ustiapenaren inguruan ere nagusietakoa da. Adierazi behar da egunero petrolio ateratzeko duen gaitasuna 9 milioi upela dela. Petrolio erreserbei dagokienez, munduko enpresarik handiena da, Iran, Irak edo Kuwaiten aurretik.



ULMA Agrícola

ULMA Agrícola 2 instalazio egin ditu Fuerteventurako La Lajita Oasis Park-en

La Lajita Oasis Park Fuerteventurako hegoaldean dago, eta Kanarietan flora eta fauna kontserbatzeko dauden proiektu nagusietakoa da. 780.000 m² baino gehiago ditu, landaredi joriz inguratuta, eta bertan daude mundu osotik ekarritako animalia exotikoak eta Europako lora-tegirik garrantzitsuenetakoa, izan ere azalera handia du (160.000 m²), diseinu zaindu eta aukeratua dauka eta espezie desberdin ugari hartzen ditu. Joan den maiatzean ULMA Agrícola parkerako egindako bi moduluren instalazioa amaitu du: bata parkeko bisitariei landareak saltzeko erabiliko da eta bestea parkean bertan birlandatzeko minte-girako. Instalaturako nabeen egiturak 1.825 m²-ko kapera anitzeko kurboa eta 1.740 m²-ko kapera anitzeko gotikoa dira, eta guztiz berdez pintatu dira, ingurunean hobeto integratzearen.



ULMA Packaging

Elikagai Freskoak Kontserbatzeari eta Ontziratzeari buruzko Nazioarteko Biltzarra, ULMA Packagingeko Zentro Teknologikoak antolatuta

Joan den ekainaren 14an, ULMA Packagingeko I+G+b-ko Unitatea ULMA PTC, S. Coop.ek Elikagai Freskoak Kontserbatzeari eta Ontziratzeari buruzko lehenengo Jardunaldia egin zuen. Jardunaldian Europa mailako hainbat ikertzaileak parte hartu zuten, eta entzule ugari bildu zen, I+G+b-ra zuzendu den eraikin berriko auditorio estreinatu berriko lekuak bete egin baitziren. Biltzarra ULMA Packagingeko Zentro Teknologikoa eta ULMA Taldearen instalazio berriak inauguratzeko ekitaldien barruan zegoen. Inaugurazio ekitaldia bera arratsaldean egin zen, ponentzien jardunaldia amaitu eta gero, eta Eusko Jaurlaritzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek presiditu zuen. Biltzarrean ULMA Packagingeko eta ULMA Packaging Technological Centerreko lehen mailako bezeroek eta aliatuek parte hartu zuten, eta interes handia erakutsi zuten programaren edukiei buruz. Hizlariak eta ponentziak hauek izan ziren, hurrenkera alfabetikoan emanda:

- Dr. Ramón Catalá del CSIC: *Panorámica de la innovación y tendencias de futuro en los envases para productos vegetales.*
- Per-Stefan Gesbro del International Packaging Institute: *El futuro en el envasado de alimentos frescos.*
- Dra. Gertraud Goldhan de Fraunhofer IVV: *Nuevas tecnologías y materiales para mejorar la calidad y la duración de conservación de los alimentos envasados.*
- Dr. Jorge Molina de AINIA: *Control de calidad en procesos automatizados de packaging.*
- Dr. Josep M^a Monfort de IRTA: *Nueva aproximación en el proceso innovativo del sector cárnico y su relación con el envasado.*
- Dr. Ernst Paardekooper de EHEDG (European Hygienic Engineering Design Group): *Seguridad alimentaria y diseño higiénico de sistemas y procesos de packaging.*

I+G+b unitate honen jarduera lau ardatzen inguruan garatzen da: zaintza teknologikoa, ezagutza erakartzea eta garatzea, berrikuntza proiektuak eta packagingeko negozio eta jardura berriak sortzea. Horrez gain, zentroaren ezagutza arlo nagusiak dira: makinaren dinamika, diseinu aurreratuak, elikagaiak kontserbatzeko teknologiak, filmen makinatzeko gaitasuna, erregulazioa eta kontrola eta, azkenik, robotika eta ikusmen artifiziala. ULMA Packagingeko I+G+b-ko unitatean 50 pertsona inguruk dihardute, eta laguntzaileen sarea maila globaleko zentro teknologiko, unibertsitate eta eragile teknologikoetara hedatzen da.



ULMA Hormigón Polímero



ULMA HORMIGÓN POLÍMEROK HYDRO PLASTIKOZKO KANALEN GAMA BERRIA AURKEZTU ZUEN CONSTRUMATEN AZKEN EDIZIOAN, ETXEO MERKATUARI ZUZENDUA ETA ESKLUSIBOKI BANATZAILEEN BIDEZ KOMERTZIALIZATUA. Polietileno edo polipropileno fabrikatua, eta EN-1433 Arau zorrotza betez, gama berria berez Hormigón Polímero negozioak zuen gama zabala osatzera dator, biltegietako banaketan eraginkorrago kokatzeko eta, ondorioz, negozioaren salmentak bultzatzeko. Eskaintzen dituen abantaila interesgarrien artean dago polimerozko gamako sareta modelo berberak konparti daitezkeela eta, ondorioz, Banatzaileei aukera ematen die biltegiko espazioa optimizatzeko.

ULMA Construcción 2007ko BAUMA Munich azokan

ULMA Construcción negozioak 2007ko BAUMA azokan parte hartu du, Munichen, apirilaren 23tik 29ra. BAUMA Azoka mundu mailan eraikuntzaren sektorean egiten den garrantzitsuen da, eta edizio honetan ULMAk 1.984 m²-ko estand bat izan du, hau da, bere historian erakusketa batean parte hartzeko kontratatu duen espaziorik handiena. Erakusketarako behin-behineko egitura estali bat erabili zen, 300 m²-ko planta bikoitzarekin, bezeroak hartu eta tratu pertsonalizatua eman ahal izateko. Erakutsitako produktuen gama ere oso zabala izan zen, eta horien artean nabarmentzen dira NEVI Enkofratu Bertikala, 3,3 x 2,4 neurriko ORMA panela, LGR zutabeetarako enkofratua eta, batez ere, Sistema Autoigokaria, garaiera handiko hormak garabirik gabe egin ahal izateko, hain zuzen ere, sistema autoigokariaren funtzionamendua hainbat aldiz erakutsi zen azokan. Izandako emaitzak pozgarriak izan dira, bezeroei eta hornitzaileei inpresio ona egitea lortu baita.



BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeak joan den ekainaren 13an eman zuen lehenengo prentsaurrekoa, eta Euskal Herriko 15 komunikabide izan ziren bertan: 2006ko ekitaldia aztertu zen, eta 2007. urterako aurreikuspen nagusiak aurkeztu ziren.

ULMA Hormigón Polímero Insytec-en bulego berrien inaugurazioan izan da Txilen



ULMA Hormigón Polímero Txileko Santiagon izan berri da, esportazioen bezerorik zaharrenetakoa den Insytec enpresaren bulego berrien inaugurazioan. Inaugurazio ekitaldira enpresa txiletarrek bazkideak eta langileak bildu ziren, eta bertan Insyteceko lehendakaria den Ricardo Lira jaunari oroitzapenezko plaka bat eman zioten. Insytec 1998az geroztik da ULMA Hormigón Polímeroren bezeroa, eta Txileko banatzaile eskusiboa da. Nabarmentzekoa da Insytecen salmenten %80 ULMA Hormigón Polímeroko produktuetatik datozela. Batez ere Kanalizazio lerroko produktuak komertzializatzen ditu, baina azken urteotan Eraikuntza lerroa ere bultzatzen ari da, batez ere leiho isurkien arloan, biziguneetako etxebizitzaren segmentu altura zuzenduta. Orain dela hiru urte bazkide berriak sartu eta Insyteceko akzio egitura aldatu egin zen. Harrezkero, bultzada komertzial handia izan du, eta gaur egun ULMA Hormigón Polímeroren esportazioen bezero nagusietakoa da.

ULMA Forja

ULMA FORJAK ULMA HANDLING SYSTEMSEK diseinatu eta garatutako automatizazio proiektu bati ekin dio

ULMA Forja, datozen urteetarako plan estrategikoaren barruan, ULMA Handling Systemsen esperientzia eta jakituria jarri du konfiantza biltegitratze automatikoa egiteko sistema bat diseinatzeko eta martxan jartzeko, baita eskaerak eta bidalketak prestatzeko ere. Gaur egun ULMA Forjak espazio fisiko gehiago behar du, forjaren eremuan zein mekanizazioarenean produkzioarako egindako inbertsioak direla tarteko. Bi adar horien garapenaren ondorioz, negozioak ULMA Handling Systemsen laguntza behar izan du, espazioaren arazoari aurre egiteko ez ezik, eskaerak prestatzeko sistemetan dauden eskakizunak betetzeko ere. Automatizazio logistikorako ULMA Handling Systemsek diseinatu duen proiektuak ULMA Forjak Oñatiko bere instalazioetan biltegitratzeko, eskaerak prestatzeko eta materiala bidaltzeko dituen beharrak aseko ditu. Abiapuntu gisa, zirkunferentzia oso bat egin da ULMA Forjaren behar logistikoen inguruan, eta hainbat azterketa egin dira espazioa ahalik eta ondoen aprobetxatzeko eta produktibitatea handitzeko. Proposatu den soluzioa materialak biltegitratzeko eta eskaerak prestatzeko sistema automatiko batera bideratu da, hiru transigogailuk osatuta, gehienez ere orduko 83 ziklo konposatuko fluxu bat lortzeko diseinatuta. Guztira, sistemak 6.808 palet hartzeko ahalmena izango du. Eskaerak prestatzeko propio horretarako atondutako hiru postu egongo dira, eta langileak, Gestio Sistemaren bidez, egin beharreko lanaren kokapen eta kopuru zehatza ezagutu ditu. Sistemak, halaber, biraketa mahaia eta jaisteko mahaia izango ditu, langileari ergonomia gehiago bermatze aldera. Gainera, grabitaterik gabeko hainbat manipulagailu izango ditu, pisu handiko materiala manipulatzeko. Eskaerak prestatzeko postuen ergonomiak lanean kalitate handiagoa lortzea ahalbidetuko du, eta horrek langileen osasunari eta segurtasunari eragingo die. Instalazioa fase desberdinetan jarriko da martxan, eta horiek 2008ko apirilean abiaraziko dira. Irudian, Iñaki Gabilondo eta Iñaki Arriola, ULMA Forjako eta ULMA Handling Systemseko gerenteak, hurrenez hurren.



ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileen Ordezkoen negozioa gora doa

SR 2002 S.L. ULMA Orgak negozioak sortu zuen enpresa da, ordezko piezak merkaturatzeko negozio lerro berri bat garatzeko xedearekin, eta egiten badakiela erakutsi du, izan ere, fakturazioa 1,77 milioi eurotik (2001. urtean) 5 milioi eurora igoko da (2007. urtearen amaieran). Hori guztia 25 langileko talde batekin. Negozioaren estrategiaren oinarrian marken dibertsifikazioa dago, eta urte hauetan zehar Japoniako eta Alemaniako merketan finkatzea lortu du, horien artean Toyota, Nissan, Linde, Still, BT eta Jungheinrich; produktuen eta marken katalogoa oso zabala da eta, aurreikuspenen arabera, horrek handitzen jarraituko du. Ikuspegi estrategiko horri esker, SR-ren zorroan mantentze propioa duten El Corte Ingles, Carrefour, Grupo el Árbol eta antzeko bezero handiak izan ditu. Nazioartekotzeko erronkan, besteak beste, Frantziako eta Portugaleko bezeroak erakarri ditu dagoeneko, eta epe laburrerako proiektuetan Alemaniako eta Frantziako merkatuetan murgildu nahi du, epe ertainera Europako merkatuan bete-betean aritzeko. Bezeroagana orientatutako zerbitzu osoa eta egokia eskaintzeko helburuarekin, SRk hornidura nazional zein internazionalerako iturri desberdinak ditu, horien barruan Asiako merkatua ere. Horrenbestez, negozio aukerarik onenak aurkezten dizkie bezeroei, salmenta prezioan lehiakortasuna eskainiz, eta eskaerak bizkor jaso, bidali eta entregatuz; finean, neurrirako egindako eskaintza egiten du, telefonoz edo online aholkularitza emanez. Ordezkoen negozioaren potentzialtasunak, etorkizunera begira, ordezkoen fabrikazioa azpikontratazioaren bidez edo barne fabrikazioz egitea planteatzen du.





Ziklismoko Mundialak ekarri zuen zalaparta bukatu zenean, nire lehenengo lanak txokolatinak biltzeko V-2 makinaren diseinua eta gauzapena izan ziren, Jose Vidal eta Pedro M. Altunaren laguntzaile. Proiektu hura amaitu eta Luis M. Madinaren zuzendaritzapera igaro nintzen, aldamioren eta zutoinen proiektuak egitera.

Ardurako hainbat postu izan dituzu, zer nabarmenduko zenuke bakoitzetik? Bai, egia esan, esperientzia desberdinez osatutako bizitza profesional aberatsa izan dut. 1968 urtean ikasketak amaitu eta gero, proiektuak gauzatzeko lanarekin batera, aldamiok muntatzeko taldearen ardura hartzen hasi nintzen: orduan 16 lagunek osatzen zuten taldea. Talde bikain hartatik gogoan ditut lan giroa eta lankidetzak; guk urtetako ikasketak eta kalkuluak eskaintzen genituen, baina eurek niretzat benetako eskola izan zen zerbait ematen zuten, eta hori da esperientzia, harremanak eta etxetik kanpo egiten zen eta elkarbizitza exijitzen zuen laneko beste hainbat gauza. 1972 urtean Aplikazio Proiektuen ardura eman zidaten, eta teknikari talde gazte batekin lan egitea egokitu zitzaidan. Soluzio tekniko konplexuen aldeko apustua gero eta handiagoa zen, nahiz eta gaurkoekin alderatzen baditugu ez ziren hain konplexuak, baina orduan ez genuen ez kalkulagailurik ez ordenagailurik, "kalkulu erregela" baino ez genuen eta, ondorioz, apustuak bazuen arriskurik. Lan horretatik nabarmenduko nuke obrako munduan harremanen aberastasuna eman zidala: obraburuak, arduradunak, kofratzaileak eta abar, eta soluzio berriak bilatzeko erronka, hori lan zirrargarria baita, askotan loa galarazteko moduko buruhausteak ematen bazuen ere. 1975 urtean Produkzio zuzendariaren postua hartzea proposatu zidaten, hau da, oso lan desberdina aurrekoekin alderatuta. Kanpoan hainbeste harreman izateari utzi eta talde humano gertuagoko bat gestionatzen hasi behar izan nuen, eta harremana desberdina zen, parte-hartzaileagoa eta errepikakorragoa. Aldi hark ere izan zuen bere puntu interesgarria, harremanetarako aurrekoak ez bezalako gaitasun batzuk garatu beharra esan nahi baitzuten, talde lanaren aldeko apustua duten pertsonen garapen profesionalerako oso garrantzitsuak. Horrela 1984 urtera arte. Enpresa krisian sartuta zegoela eta, gogor berregituratu behar izan zen, eta Construcción eta Packaging jarduerak bereizi ziren eta niri Eraikuntzako Gerentzia hartzeko aukera planteatu zidaten. Egiazki, ez ziren horrelako konpromisoetarako helburuak garai goxoak, neuk ere ez bainuen konfiantzarik

“Berrikuntzaren erronkari eutsiz jarraitu beharra dago”

Jose Luis, bizitza osoa ULMAri eskainia, zer sentitzen da ziklo hori amaitzean? Zure lan bizitzaren zikloa amaitzen dela sentitzen da, baina horrek ez du esan nahi lanari eta zeure burua gauzatzeari utzi behar diozunik. Lan egiteko modu bat amaitu eta bizitzaren beste ikuspegi bat hasten duzu, etapa berri bat, ez zaude lan kontratu sozietario baten menpe, baina Sozietatean presente egoten jarraitzen duzu, kide aktibo gisa, nola edo hola ekarpenak egiteko moduan. Denbora gehiago daukazu, eta hori, seguruenik, beste modu batean banatuko duzu zaletasunen eta orain arte egin dituzun hainbat lan jakinen artean.

Nolakoa izan zen ULMAko hasiera, nola eta non hasi zinen? Bizitza profesionala CEGASAn hasi nuen, lanean eta ikasten egun erdiz, Industri Maisutza ikasten ari nintzela. Han 18 hilabetez jardun nuen.

Ingeniaritza ikasten hasi nintzenean (orduan Industri Peritutzak esaten zitzaion), 1965. urtean, Luis M. Madinak ULMA, S. Coop.en lanean hastea proposatu zidan; artean enpresa berri bat zen, kooperatibaren formularekin eratuta eta, alderdi horrek erakarri egiten ninduen, ULMA n sartzea erabaki nuen. Hasierako hiru urteetan egun erdiz lan egin nuen, ikasketak amaitu arte. Anekdotak gisa, ULMA n hasi nintzen egunean, 1965eko abuztuaren 26an, enpresan 110 bazkide ziren, eta horien erdiak Lasarten ari ziren, irailaren hasieran Ziklismoko Mundialak egingo zirela eta, tribunak, eszenatokiak, hesiak eta abar muntatzen. Lehenengo egunean ULMA n hartu ninduen pertsonak galdetu zidan ea ausartuko nintzen ULMA k erosi zuen lehenengo kamionetaren errotoa pintatzen. Seguru herriko edozein pintorek hobeto egingo zuela, baina hura izan zen ULMA n egin nuen lehenengo lana.

José Luis Madinagoitia

ULMA Taldeko
lehendakari ohia

Jose Luis Madinagoitiak joan den ekainean agurtu zuen bere lan etapa ULMA n, erretiroa iristearekin batera. Berekin egon nahi izan dugu, kooperatiban 40 urte baino gehiago igaro eta, dituen sentsazioak kontatzeko.

zuzen egingo ote nuen. Postua onartu nuen, enpresan pertsonen konfiantza eta babesa nuela ikusi nuelako, baina postua hartu eta urtebetera nire ekarpena kuestionatzeko baldintzarekin. Horrenbestez, orduan hasi nintzen Construccióneko gerente postuan, eta bertan jardun nuen 16 urtez, 2000 urtera arte, enpresak nazioartekotzeko prozesuan bete behar zituen beharrak ikusirik, Kontseilu Errektoreari erreleboa eskatu nion arte. Nire azken etapan, 2001 urtean ULMA Taldeko Lehendakaritzan sartu nintzen, eta horrekin batera, 2003 urtetik aurrera, C y E eta Construccióneko Lehendakaritzan aritu nintzen aldi berean. Azken bi etapak oso asegarriak izan dira, ULMA Construcciónek zein ULMA Taldeak izan duen bilakaera kontuan hartuta.

Zein dira ULMAtik dituzun oroitzapenik onenak? Eta kooperatiban egokitu zaizkizun unerik gogorrenak? ULMAko oroitzapenik onenak garai batean ikasteko eta probak egiteko eduki ditudan aukerei lotuta daude, baina, zerbait



“Erakunde erakargarri bat izan behar dugu, eta pertsona onenak gurekin gera daitezen”

nabarmentzekotan, 85etik 90era arteko urteekin geratzen naiz: enpresaren egoera oso gogorra izatetik denon artean gauza izan ginen, giro kooperatibo bikainarekin, egoerari eutsi eta buelta emateko. Azken bost urteetako egoera ere nabarmenduko nuke, ULMA Taldearen mailan garapena ikusgarria izan baita. Une gogorrei dagokienez, egiazki izan dugu horrelakorik, baina horiek ahaztu nahiago dut, nahiz eta bai azpimarratuko nukeen horietatik hainbat gauza ikasteko gai izan garela eta indartuta irteteko balio izan zaizkigula, askotan ataka latz eta zailak izan diren arren.

Etorkizunari begira, bide egokian goazela uste duzu? Zure iritzi, ze erronka daukagu aurrean? Benetan uste dut etorkizunari begira ongi kokatuta

gaudela, baina ezin gara autoatseginkeria erori, berrikuntzaren eta hazkundearen erronkari eutsi behar diogu etengabe, eta gizarteari zor diogun konpromisoa horixe dela uste dut. Etorkizunean aurre egin beharreko erronkei dagokienez, gero eta gehiago egokituko zaigu merkatu lehiakorretan borrokatzea, azaleratzen ari diren eta soldata baxuagoak dituzten herrialdeen mehatxuekin, izan ere herrialde horiek, munduko eskubide guztiarekin, lehia planteatuko digute, eta guk formula irudimentsuak erabili beharko ditugu: berritzen, sortzen eta gure erakundeen pertsonen gaitasunak ahalik eta gehien aprobetxatzen. Eta beste erronka bat uste dut izango dela erakunde erakargarria lortzea, pertsonarik onenak erakartzeko eta horiei eusteko gauza izango dena, gure eredu kooperatiboarekin konbentziturata eta enpresa funtzio desberdinetarako egokiak izango diren pertsonak. Horri gehitu behar zaio Taldean pertsonen garapenari garrantzia ematen zaion eta ematen jarraitu behar zaiola, eta horrela ahalbidetuko dugu merkatuan lidergo posizioak lortzea eta horietan mantentzea.

Nola gozatuko duzu denboraz hemendik aurrera? Ba, hain zuzen, hori da etapa berri honetan gehien aldatzen den alderdietakoa... Zure galderari erantzunez, alde batetik, hizkuntzaren bat ikasi eta maila hobetu nahi nuke (seguruenik, frantsesa), eta kooperatiben filosofian eta gaian sakontzen ere jarraitu nahi nuke. Horrez gain, orain arte baztertu samar izan ditudan zaletasunei denbora gehiago eskaini nahi diet: mendia, gorputzak ahal duen bitartean, irakurtzea, fotografia, musika... eta garrantzitsuena, familiari denbora gehiago ematea, nahiko zigortuta egon da lan bizitzaren aldiak.

Despediden orduan beti Pertsonekin pentsatuko dela suposatzen dut... nor gogoratu nahi zenuke une hauetan? Orainxe bertan pertsona asko eta asko etortzen zaizkit gogora; gozatu handia izan da niretzat ULMA proiektua eta gure lan orduak horiekin konpartitzea. Ez naiz zerrenda egiten hasiko, seguru bat baino gehiago kanpoan utziko dut eta, baina bai gogoratu nahi dut ULMA C y E, S. Coop.eko azken Batzarrean agur esan nuen

nean aipatu nuen gizon bat, izan ere kooperatibaren mundu honetan sartu ninduen maisua izan zen niretzat, urte gogorak eta hainbat poz konpartitu nuen harekin eta errekonozimendua zor diot: Luis M. Madina da, bere printzipio kooperatiboekiko gizon zintzoa. Oroitzapenen orduan, halaber, nola edo hala huts egin dieran pertsonak datozkit. Erabakiak hartzeko obligazioan beti ez da asmatzen, eta erabaki batzuk pertsona batzuentzat egokiak dira baina beste pertsona batzuentzat ez. Seguru nago nire bizitza profesionalean hartu behar izan ditudan hainbat erabakitan ez nintzela justua izango, intenziorik onenarekin hartuta ere. Ez duela tratu justua jaso sentitzen duten guztiei barkamena eskatzea dagokit. Agurrean ez dut ahaztu nahi enpresari berari eskerrak ematea, kooperatibari, bazkide guztiok osatzen duzuen horri, maila profesionalean, sozialean eta humanoan garatzeko aukera guztiak eman dizkidalako. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Jose Luis, zein da ULMA Taldeko kolektiboari helarazi nahi diozun amaierako mezua? Nire amaierako mezua aurten ULMA Taldearen Batzar guztietan egin dudan gogoeta baino ez da izango. Gure enpresa kooperatiboetan bazkideak kasu guztietan behin-behineko bazkideak gara. Egun batean bazkide sartzen gara eta, hortik urte batzuetara, beste egun batean, joan egiten gara, erretiroa hartzen dugulako edo beste arrazoi bategatik. Baina enpresa, kooperatiba, geratu egiten da, eta Gizartean geratzen da. Horregatik, nire ustez, kooperatibak Gizartearen enpresak dira, finean, Gizartearentzat geratzen baitira. Eta errealtate horren aurrean, zera galdetzen dut: zein da kooperatibako bazkideok hartu beharko genukeen konpromisoa? Erantzun samurra du, nire ustez; utz dezagun etorkizunerako enpresa hobeagoa, gu sartu ginen garaian aurkitu genuena baino. Konpromiso honekin betez gero, gizarte hau enpresa kooperatibo geroz eta finkatuagoekin eta aberastasun handiagoa sortzen dutenekin aurkituko da. Horixe da, azken batean, garrantzitsuena, eta horretara gonbidatzen zaituztet guztiok, gazteok batez ere, Talde honetako etorkizuna zarete-eta.

ULMAko instalazio be

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak inauguratu zuen joan den ekainean Packagingen Zentro Teknologikoa, ULMA Taldearen Sustapen Zentroa eta egoitza nagusi berria hartzen dituen planta berria. Instalazioak Oñati Unibertsitate eta Teknologia Hiria-aren hasiera justifikatzen duten elementua dira, herriko Udalak eta ULMA Taldeak berak sustatuta, eta ULMAk azken urteetan izan duen hazkundeari erantzun nahi diote eta, aldi berean, sistema, produktuak eta zerbitzuen garapenean jarrera proaktiboa hartu. Inaugurazio ekitaldia Juan Jose Ibarretxe lehendakariak presiditu zuen, eta pertsona ezagun ugari bildu ziren. Protokoloko jarduerak laguntasun giro atseginean gauzatu ziren. Inaugurazioko ekintzei buru emateko, Ainhoa Garmendia sopranoak kontzertu lirikoa eskaini zien gonbidatuei, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan. Inaugurazioarekin bat eginda, Elikagai Freskoak Kontserbatzeari eta Ontziratzeari buruzko lehenengo jardunaldia egin da, ULMA Packagingeko Zentro Teknologikoa berak antolatuta. Jardunaldian Europa mailako izen handiko hizlariak parte hartu dute, eta entzuleria oso jendetsua izan da, eraikinean bertan estreinatu berri den auditorioa bete egin baita. ULMA Packagingeko Zentro Teknologiko berria ontziratzearen eta enbalatzearen ingurunean talde sektorial handi bat sortzeko oinarria izatea nahi da, teknologia berriak erakartzeko eta gartzeko, berrikuntza proiektuak garatzeko eta, horren guztiaren ondorioz, packagingean oinarri teknologikoko jarduera eta negozio berriak abiarazteko. Jarduera ildo horiek sei jakintza arloren inguruan antolatzen dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira ontziratze eta kontserbatzeko teknologiak, erregulazioa eta kontrola, diseinu aurreratuak eta robotika eta ikusmen artifiziala. Horrez gainera, ULMA Taldearen Sustapen Zentro berriak ULMAren jarduera

berrietarako eta etorkizuneko negozioetarako hazitegia izan nahi du, eta ULMAren Sustapen Politikaren erantzun gisa sortu da. Politika hori Taldeak ingurunean enplegua eta aberastasuna sortzeko konpromisoaren erantzun gisa ulertu behar da, eta bere oinarrian dago modu aktibo, planifikatu eta irmoan enpresa sustapen berriak garatzea, etorkizunean kooperatiba berriak sortu ahal izan daitezkeen.



erriak inauguratu dira



> Erreportajea



Ainhoa Garmendiaren kontzertua



Irudietan, Mikel Goiaingeruaren parrokia lepo bete zen Ainhoa Garmendiaren kontzertu bikaina entzuteko.

Ate irekien saioa




Irudietan, ekainaren 15eko ate irekien saioaren bi irudi. Goizean, erretiratuek instalazioak ikusi zituzten eta arratsaldean, bazkide zein langileek.

ULMAko fatxada aireztatuak

ULMAko fatxada aireztatua eraikin baten kanpoaldearen itxitura estaltzeko sistema bat da, hainbat baldintza eta oinarrizko prestazio eskainiz, erabiltzaileen konforta segurtatzeko eta eraikinen ongizatea segurtatzeko helburua duena. Bere ezaugarria da estali beharreko itxituren jarritako isolamenduaren eta estalkiko plaken artean mugimenduan dagoen aire kamera bat osatzen dela; ondorioz, portaera termiko ezin hobea lortzen da. Adierazi behar da 2005ean Egokitasun Teknikoaren Ziurtagiria lortu zela (DIT), Madrilgo Eduardo Torrojak emanda, eta aurreko Eraikuntzako Kode Teknikora moldatu da (CTE). Material birziklagarria eta berrerabilgarria da, ez du kutsatzen, eta kimikoki inerte da. Silize eta kuartzo azidoen konbinazio bat erabiltzen du, poliester egonkorrezko erretxinaren bidez lotua, eta horrek erresistentzia bikaina eta harrizko materialetan ohikoa ez den arintasuna ematen dio. Iragazgaitza izateaz gain, ez da aldatzen izozte-desiozko zikloetan, eta erresistentzia handia dauka talka, abrasio eta produktu kimikoekiko. Teknika segurua eta arina da. Eraikin berrietan zein zaharberritu behar direnetan erabil daiteke. Eraikinaren isolamendua konpontzeko sistemarik eraginkorrenat jotzen da, eta kondentsazio arazoak deuseztatzen ditu. Soluzio efizientea da eraikinen bizitza luzatzeko eta energia aurrezteko. Dagoeneko, Arkitektura ez dira objektuak, lan metodoak baizik. Jarduera Kudeaketa Integralean oinarrituta dago. Hainbat profesional kualifikatuk osatutako proiektu talde bat dago, eta hori prozedurez eta kontrolaz arduratzen da proiektua burutu arte, hasi fabrikaziotik, material hornidurarekin jarraitu, behar bakoitzaren neurriko soluzioa bilatu eta, azkenean, obra amaitu eta entregatzeraino. Sormenaren aldeko apustua egiten da, aldi berean funtzionaltasuna, iraunkortasuna eta diseinua elkartzea lortzen duten aplikazioekin, eta arkitektura dotorea eta kalitatezkoa bermatzen da. Horregatik, eskaintzan formatu, kolore eta akabera ugari proposatzen dira.

Fatxada aireztatuen detaile teknikoak



: sektorearen abangoardian



XEDEA

Jarduera honen xedea hirigintzako ingurunea aberastea da, Eraikuntzaren merkatuari hormigoi polimeroz aurrefabrikatutako Fatxada Aireztatuak eta azpiegitura eskainiz, kanpoaldeak estaltzeko behar partikularrak asetzeko helburuarekin, maila estetikoan (diseinua), teknikoan (fatxada jartzea) zein funtzionalean (isolamendua), erabiltzaileek konfort gehiago izateko, eraikinaren ondare balioa handitzeko eta energi kontsumoan aurrezteko.

2006ko erreferentziak


- NAZCA - PERU ETXEBIZITZA ERAIKINA, CACERES
- PRESTAKUNTZA ZENTROA, SAN SEBASTIAN DE LOS REYES
- ETXEBIZITZAK, PONIENTE, GIJON
- 80 APARTAMENTU BABESTU, ANDOAIN
- CATALONIA Pelayo HOTELA, BARTZELONA
- 39 ETXEBIZITZA, MANZANA 30, KORDOBA
- SANTIAGOKO UNIBERTSITATEKO IKERKETA BIOLOGIKOEN ZENTROA
- ETXEBIZITZAK JUAN CARLOS I ETORBIDEAN, MURTZIA
- CEIP PALAFRUGELL
- CEIP EL TREN DE FORT PIENC, BARTZELONA
- 9 ETXEBIZITZA ITSATSU, PAIPORTA
- SALTOKIA, ORIHUELA
- UPTC, OÑATI
- INGETEAM ERAIKINA, IRUÑEA
- ZENTRO INTEGRATUA PAMPLONA ETORBIDEAN, MADRIL
- IDEKO ZENTRO TEKNOLOGIKOA, ELGOIBAR
- ULMA PRECINOX
- ULMA HANDLING SYSTEMS
- MARE DE DEU EGOITZA ZAHARBERRITZEA, TARRAGONA
- MILLENIUM ERAIKINA, PARLA
- 112 ETXEBIZITZA, LOGROÑO
- JOLAS ETA MERKATARITZA ZENTROA – HOTELA, MONTCADA
- GUARDA INGLESA ERAIKINA, COIMBRA (PORTUGAL)
- BRESSOL ESKOLA, LLORET DE MAR

"Fatxada eraikinak hiriari eskaintzen dion irudia da; gainera prestigioa eta diseinua ere iradokitzea nahi dugu eta, jakina, koherentzia urbanoa. Garapen arlo zabala dugu aurrean, proiektuak banaka hartuta pentsatzen ditugu, sormen arkitektonikoari laguntzen dioten proposamen eta soluzio formalak eskainiz parte hartzen dugu. Eraikuntzaren Kode Teknikoa indarrean jartzean eraikinek segurtasunari eta bizigarritasunari dagokienez bete behar dituzten baldintzak ezarri dira. Fatxada Aireztatua sistema efizientea da, eraikinaren erosotasunaren eskaintza osatzen duena. Helburua eraikinaren portaera hobetzea da, zubi termikoak galaraziz, eta horren ondorioa da energia asko aurreztea eta erabiltzaileen patrikari kalte gutxiago egitea. 1920 inguruan, Le Corbusier arkitektura garaikidearen maisu handiak arkitektura berriari buruzko bere postulatuak zehaztu zituen eta, besteak beste, zera zioen: fatxadak libre behar du, egituratik independente. Denbora asko igaro bada ere, gaur egun esan dezakegu errekonozimendu profesionala bizi-bizi ikusten hasi dela eraikuntza proiektuetan; ondorioz, fatxada aireztatua lekua irabazten joango da itxitura tradizionalarekiko, eta ULMArentzat negoziarako aukera on gisa ageri da."

JARDUERAREN DATUAK



- Jardueraren sorrera urtea: 2005.
- Enplegu sorreraren aurreikuspena 2010erako: 100 postu.
- Salmenta aurreikuspenak 2010erako: 20 milioi €.
- Beharrezko azpiegitura: Industri espazioa, moldekatzeko bigarren zirkuitua eta mekanizazioko soluzioak.
- Konprometitutako inbertsioa: 4 milioi €; Ahalmena handitzea 2010 urtera arte: beste 4 milioi €.



JUAN CARLOS TXINTXURRETA

Fatxada Aireztatuen lerroko zuzendaria

Sorbalda mindua: maiztasuna, kausak eta tratamendua

Sorbaldako mina maiz gertatzen den garrantzi handiko gaitza da, lanaren inguruko ondorioak zein sozioekonomikoak dituelako. Biztanleria orokorraren %3-7ri eragiten dio. Sintomatologia honen kausarik ohikoena mahukatxo birakariaren gaixotasuna da. Gero azalduko ditugun hainbat mekanismok –mekanikoak, baskularrak, lanekoak...– eragiten dute koadro kliniko hau agertzea, zeinak izen desberdinak hartzen dituen, horien artean gatazka subakronilaren sindromea, impingement sindromea, mahukatxo birakaria konprimitzearen sindromea... eta azken emaitza mahukatxo birakaria lesionatzea edo haustea da.

Sindrome subakromiala/mahukatxo birakariaren gaixotasuna agertzeko eragiten duten faktoreen artean honela multzoka ditzakegu:

- **Faktore intrintsekoak**, pertsona guztientzako komunak. Egitura honetako berezko faktoreak dira, eta tendoiaren lesioa berez sortzeko ahalmena dute, baita beste faktorerik ez badago ere.
- **Faktore estrintsekoak**, giltzadure-tako hezur egiturei eragiten diete, eta marraskadura handi dezakete, tendoiak ibiltzeko duen espazioa murrizten delako.
- **Faktore okupazionalak**, sorbaldan bere mailatik gora etengabe erabiltzea eskatzen duten kiroleko (igerilariaren sorbaldan) edo laneko jarduerak dira (bereiztean-jasotzean eta erresistentziaren kontra).
- **Faktore traumatikoak**. Zaila da sorbaldari zuzenean eragiten dioten traumatismoak mahukatxo birakaria lesionatzea, hau da, traumatismoak oso-oso bortitza behar luke. Halere, gerta daiteke traumatismoa dagoeneko existitzen den arazo subakromial baten sintomatologia eragiten edo larriagotzen duen elementua izatea.




Sintomak eta tratamendua

Mina, sintomarik ohikoena, sorbaldan goian, aurrean eta alboan kokatzen da. Areagotu egiten da besoak buru gainera jasotzea exijitzen duten jarduerekin eta gaueko atsedenerekin, batez ere kaltetutako besoaren gainean bermatzen denean. Beste sintoma batzuk dira sorbaldan ahultasuna eta mugigarritasuna mugatzea, benetan ezinezkoa delako edo minez dagoelako. Gaixotasunaren diagnostikoa azterketa fisikoarekin, erradiologia konbentzionalarekin edo ekografiarekin egin daiteke, eta erresonantzia magnetikoarekin egiaztatzen da. Tratamenduak hauek izan daitezke: kontserbadorea, hau da, hotz lokala, esaterako, sintomak hasten direnean egunean bi aldiz izotza ezarri; giltzaduraren atsedena; antiinflamatorioak eta errehabilitazio zuzendua (ultrasoinu uhin laburra); infiltrazio lokalak kortikoideekin, edo tratamendu kirurgikoa (sorbaldaren artroskopia edo kirurgia irekia edo deskonpresio subakromiala, tendoiaren jostura).

Patologia ohizkoenak

- Bursitisa/Tendinitis supraespinosa - %60.
- Kapsulitis itsaskorra - %12.
- Errotadoreen mahukatxo haustura - %10.
- Artritisa - %7.
- Tendinitis bizipitala - %4.



Adinakako diagnostiko ohizkoenak

15 - 35 Urte:

- Tendinitis supraespinosa/ Bursitisa.
- Gatazka subakromial sindromea – I. Maila.
- Traumatismoak.

35-50 Urte:

- Tendinitisa eta bursitisa.
- Gatazka subakromial sindromea – II. Maila.
- Kapsulitis itsaskorra.
- Tendinitis kaltzifikantea.

+ 50 Urte:

- Gatazka subakromial sindromea – II-III. Maila.
- Tendoi haustura.
- Artritisa/Artrosisa.
- Kapsulitis itsaskorra.

gutarren argazkiak eta historiak

ULMAko triatletek Alemaniako Rotheko Ironmanean

Oñati Triatloi Taldeko triatletek joan den ekainean Alemanian jokaturako ironmanean parte hartu zuten, igeri 3,8 kilometro, bizikletan 180 kilometro eta oinez lasterka 42.195 metro egin ondoren. Proban munduko geografia osotik bertaratutako 2.600 parte-hartzaile baino gehiago elkartu ziren, eta kirol festa handi bilakatu zen. Oñatiko parte-hartzaileen artetik nabarmen daiteke ULMA Forjako Iñaki Pelayok egindako denbora, kronoan 9h, 23 minutu eta 53 segundo markatu baitzuen, 69 postuan. Ondotik sartu ziren Jon Celaya, 9h, 33 minutu eta 9 segundorekin, 90. postuan, eta ULMA Packagingeko Josu Odriozola 9h, 37 minutu eta 41 segundorekin, 99. postuan. Bizikletan egin beharreko bidera zale ugari bildu zen kirolari eta triatleta guztiak animatzeko; azkenean, izena emandako 2.600 parte-hartzaileetatik 2.245 triatletak amaitu zuten ironmana.

“Dena orain dela bi urte hasi zen, Austrian egin genuen lehenengo ironmanaren ondotik. 2005ean parte hartu genuen 8 triatleten euforia aprobetxatuz, eta gure emazte eta neska-lagunen konplizitatea bilatuz, bazkalorduan 2007an Rothera joango ginela aipatu genuen. Azkenean horixe egin dugu. Horregatik, 2006ko uztailean taldeko 13 triatletak izena eman genuen eta, 2006aren amaieran serio entrenatzen hasi ginen. Ia egunero presatzen jardun dugun sei hilabete horietan bi pertsona lesionatu egin dira eta, azkenean, 11 lagun joan gara. Proba gogorra da luzerari eta abarri dagokienez baina, etxeko lanak ongi eginda edukiz gero eta

emaitza ona dela ikusiz gero, disfrutatzeko bidea ematen du. Egia da 10-11-12 orduetan denetatik gerta daitekeela eta, esaten ari naizenez, oso gogorra izan daitekeela. Baina benetan gogorra prestakuntzako 6 hilabeteak dira (diziplina, konstantzia, eguraldi txarrari hartzak erakutsi, lanarekiko bateragarritasuna...), eta ez soilik guretzat, baizik eta baita ere gure bikotekide, emazte eta senideentzat, horiek ari baitira guk egiteke edo erdizka uzten ditugun gauzak egiten eta, gainera, lagundu egiten digute. Uste dut ondoan ditugun pertsona horiek meritu handia dutela eta errekonozimendua behar dutela!!!! Norberaren eta erlojuaren kontrako

erresistentzi proba bat da, eta faktore askok eragiten dute. Harrigarria da horrelako jardueren inguruan zenbat jende mugitzen den eta zenbat pertsonak parte hartzen duten (adin eta sexu desberdinetakoak, elbarriak...). Norbera hobetzeko proba da, zeinean diziplinak banan-banan hartuta ere oso-oso gogorrak diren. Munduan ironman asko egiten da, eta bakoitza desberdina da (zirkuituak, klima...); ondorioz, probetako denborak ezin dira a priori konparatu. Aurten 11 lagun joan gara eta guziok amaitu dugu proba, eta hori ez da gutxi. Oro har, urdailako arazoak izan dituztenek izan ezik, denok hobetu dugu...”



Irudian, saioa egindako 11 lagunak; Iñaki Pelayo (ULMA Forja), Jon Celaya, Josu Odriozola (ULMA Packaging), Raul Montiel, Unai Pedregal (ULMA Packaging), Joseba Blazquez, Mikel Azkorbebeitia (ULMA Packaging), Jesus Cantero, Iban Uribetxeberria (ULMA Packaging), Iban Isasti (ULMA Packaging) eta Martin Odriozola.

ULMA Agrícola S.Coop., ULMA

Nekazaritza sektorearen eta, aldi berean, gaur egun ULMA Agrícolak eskaintzen duen produktuaren bilakaera hasieran zegoen produktuen zorroaren oso bestelakoa da. Hainbat bileratan aldaketa horri buruzko azterketa eta gogoeta egin zen eta, ondorioztatuzenez, Agrícola eta Construcción negozioen arteko sinergiak jada ez ziren hasieran bezain handiak, eta oztopo bihurtzen ari ziren Agrícola negozioaren hazkunderako eta martxa onerako. Arrazoi hori dela eta, 2007ko maiatzaren 18an, ULMA C y E S.Coop.ek Donostiako Kursaal Auditorioan egindako Ohiko Batzar Orokorrean, ULMA Agrícola banantzeko erabakia hartu zen. Horrenbestez, 28 urtez ULMA Construcciónen barruan negozio lerro gisa jardun eta gero, joan den 2007ko uztailaren 1ean ULMA Agrícola S.Coop. eratu zen, ULMA Taldearen barruan enpresa independente gisa. Kooperatiba berriak 29 bazkide dauzka, eta egoitza Oñatiko Garibai auzoko 9 zenbakian dago. ULMA C y E, eraikuntzaren sektorean 70eko urteen amaieran eta 80koen hasieran izandako krisiak bultzatuta, merkatu hobi bat detektatu zuen nekazaritzaren sektorean, zeuden sinergia produktiboak produktu berriak merkaturatzeko aprobetxatzeko aukera ematen zuena. Hortik hasi zen 1980an nekazaritzaren jarduera, tutuak egiteko eta eraldatzeko makineria edukitzeak aukera

eman baitzuen tunel moduko berotegi soilak fabrikatzeko eta eraldatzeko, eta nekazaritzaren sektorearen beharrak asetzeko, sektore hori hasita baitzegoen laboreak gorabehera meteorologikoetatik babesteko egiturak eskatzen. 25 urte igaro eta gero, sektorea bilakatu eta egitura altuagoak eskatzen dira orain, motorren bidez eragindako eta automatismoz kontrolatutako leiho sistemaz hornituak; sistema horiek aldagai meteorologikoen arabera kontrolatzen dira –haizea, tenperatura, euria, hezetasun erlatiboa eta eguzkiaren indarra–, eta berotegiaren barruan mikroklima kontrolatua izatea ahalbidetzen dute. Gaur egun, ULMA Agrícolaren jarduera laboreak egiteko estalpeko egiturak eta sistemak fabrikatzea eta merkaturatzea da, eta, horrekin batera, horiek klimatizatze eta automatizatze osagarriak. Produktu berriak sartzeari esker, horien artean automatizazio sistemak, kultibo mahaiak, berokuntza ekipamenduak eta abar, eskaintza integral gero eta handiagoa eta handinahiagoa egin daiteke. ULMA Agrícolako I+G+b-ko departamentuan garapen propioak egiten ari dira, eta proiektuak eta produktu-zerbitzuak azpikontratatzeko ingeniari bat balitz bezala dihardu, batez ere beren ezaugarri espezifikokoak direla eta barne garapena ahalbidetzen ez duten sektoreetan.



A Taldeko kooperatiba berria



ALBERTO GALDOS

ULMA Agricolako gerentea

“Enpresa gaztea gara, gaztea eratu berria garelako, eta gaztea bazkideen batez besteko adina 33 urte delako; baina, aldi berean, enpresa beteteranoa gara, 28 urte baitaramagu nekazaritzaren sektorean eta sektorean erreferentziazko enpresa garelako. Orain hasi dugun bidaia berriak dakarkigun erronkak ULMA Agrícola osatzen dugun guztion konpromisoa eskatzen du, eta, hain zuzen ere, gaztetasunaren eta beterranotasunaren arteko konbinazio horrek eraman behar gaitu proiektuan ilusioz inplikatzera, urteak igaro ahala, atzera begiratu eta eraiki duguna ikusiz harro sentitu ahal izateko. Hazteko itxaropen handia daukagu, funtsezko bi zutabetan oinarrituta. Horietako lehenengoa soluzio integraletan haztea da, eta hori ezinbestekoa da barne merkatuan. Orain dela hamar urte inguru ULMA Agrícola negozioaren mamia berotegien egitura zen. Gaur egun beste pauso bat eman dugu aurrera, eta ekipamendu osagarriak garatu ditugu, kontrol klimatiko hori are gehiago fintzeko. Horrenbestez, berogailuak, pantaila termikoak, hezetzeko sistemak, kultibo mahaia eta antzeko hitzak ULMA Agricolaren eguneroko argotean barneratu dira. Etorkizunean, sektoreak gero eta gehiago proiektu ingeniaria bat bagina bezala lan egiteko eskatuko digu, lehen sektorean instalazio integralei soluzioak eskaintzeko erronkari erantzuteko. Gure hazkundera oinarritu behar duen beste zutabea nazioarteko merkatuak dira, eta merkatu horietan oso kokapen lehiakorra dugu, pribilegiatua, lau kontinenteetan landutako proiektuekin, izan ere, horietan nekazaritza babestua gora doan sektorea da, eta garatzeko aukera handiak ditu gainera”.



SANTI MENDIOLA

ULMA Agricolako lehendakaria

“ULMA C y E, S. Coop.en barruan Construcción negozioaren eskutik joan eta gero, “heldu” bihurtu garela ematen du. Aurrerantzean, gure ibilbidea nortasun eta Negozio propio gisa garatuko da, nekazaritzako berotegien merkatuan lan egindako urteotan prestigioa eta izena hartzea lortu baitugu. Horrenbestez, alderdi operatiboan helduak garela uste dut, eta arlo sozialean bide berriari ekin behar diogu, erronka berriekin, eta gure ahalegin guztia egin beharko dugu; horretan beharbada abantaila daukagu, kolektiboa oso handia ez denez, konplizitatea edo “fellingia” erreferentzia izan baitaiteke ULMA Agricolako giza taldea finkatzeko. Beharbada, zeregin hori berria da, egunero landu beharko dena, negozioa osatzen duten kolektibo desberdinen batasunari eta talde espirituari eutsiz. Nire nahia da gure negozioan langileak enpresarekin identifikatuta sentitzea eta, horretarako, kolektibo irekia izan behar dugu, komunikatiboa eta parte-hartzailea. Ez dugu ahaztu behar enpresa batek dituen balioetan funtsezkoenetakoa giza faktorea dela, eta guk, kooperatiba garen heinean, espiritu horretan erreferentea izan behar dugu. Horretarako, proiektuan denok parte hartu behar dugula uste dut, bakoitzak bere jakintza eta egikera zuzena eskainiz, ULMA Agricolak bere buruari ezarri dizkion erronkei aurre egin ahal izateko. Globalizazioaren mundu honetan, hazteko erronka handia daukagu datozen urteetarako, gure negozioa nazioartekotzen ari da, eta estalpeko kultiboa eskatzen ari diren eta azalartzen ari diren merkatuak bilatu eta asmatzeko gai izan behar dugu. Urrats horiek egiten ari garela uste dut. Etxeko merkatua ere az dugu ahaztu behar, horretan presentzia handia baitugu, eta lidergoari eutsi behar diogu. Helburu horiek lortzen laguntzeko, proiektu handi batean murgilduta gaude: Munasategi industrialdeko planta berria akuilua izango da gure enpresa ilusioak eta ahaleginak finkatzeko eta identifikatuta sentituko garen nortasun propioa izateko. Azkenik, ez nuke amaitu nahi Enpresa Talde garrantzitsu bateko kideak garela esan gabe, industri sektorean erreferentzia den ULMA Taldeko kideak alegia, zeina, bere negozio guztien esfortzuekin eta ilusioarekin, orain dela zenbait urte pentsaezinak ziren helburuak lortzen ari den. Kideak animatu besterik ez zait geratzen, guztion artean, gure ahalmenean arabera eta ilusioz, talde hau parte-hartzailea izan dadin, ikuspegi positiboarekin, horrek lagundu egingo baitu ULMA Agrícola izatea nahi dugun puntura iristen, gure sektorean erreferentea izatera. Ez da gauza erraza izango, baina konbentziturik nago denon ahaleginaz lortu egingo dugula”.

ULMA Fundazioaren eginkizuna ezagutzen duzu, ematen dituen laguntzak eta ekarpenak ezagutzen dituzu? Zure iritziz, zer alderdi indartu behar litzateke?

Atal hau hobetzeko, gauza bat proposatu nahi dizugu: bidali atal honetan planteatuta ikusi nahi zenituzkeen gaiak edo galderak; begira@ulma.es



MAIXABEL KORTABARRIA
ULMA Agrícola

“Bere lana kanpoan ezagutzarazi egin beharko litzateke”

Nik dakidanez, ULMA Fundazioak Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoa bideratzen du (HKSF), Batzar Orokorrean onartuta. Laguntza sozialen entitate onuradunen artean, bai nire lanagatik bai bizi naizen inguruneagatik, ezagunenak ASPACE, BANOIA eta Aljeriako eskualde behartsuenetara berotegiak bidaltzen parte hartu duten hainbat GKE dira. Laguntza soziokulturalak hartu dituzten erakunde onuradunen artean LAIXAN, KILOMETROAK, KIROLGI, MUNDUMIRA eta Debagoieneko hainbat eskola, abesbatza eta kirol klub ditut ezagunen. Horrez gain, ez dakit Fundazioaren eginkizuna hori bakarrik den edo besterik ote dagoen. Horrekin ez dut esan nahi egiten duena gutxi iruditzen zaidala, baizik eta egiten diren ekintzak, urteko batzarretan jakinarazten badira ere, kooperatibaren barruko mailan geratzen direla, hau da, ez direla kanpoan promozionatzen ULMA Fundazioak egindako ekintza gisa eta, nire iritziz, alderdi hori landu beharko litzateke Fundazioa ULMAren ingurutik kanpo ere ezagutarazteko.



ERNESTO MAIZTEGI
ULMA Orga Jasotzaileak

“Interes sozialeko erakundeekiko lankidetzak sakondu behar da”

Bai. Ezagutzen dut Fundazioaren eginkizuna, eta helburu hauek ditu: gure kooperatibetako bazkideak eta langileak prestatzea, taldeko kooperatibek elkarri laguntzeko jarduerak sustatzea eta gure kooperatibek diharduten ingurune sozialean sustapen soziokulturala egitea. Azpimarratu beharreko alderdiei dagokienez, kontuan hartuta gure garapena konpromiso sozialarekin bateratu behar dela, etekinaren zati bat gizartearen mesedetan bideratuz, nire ustez interes sozialeko jarduerak egiten dituzten erakundeekiko lankidetzak sakondu behar da (adibidez, Matia, Mundukide...).



ERNESTO MAESTRE
ULMA Construcción

“Pertsonalitate propioa ematen digun gertakari diferentziala dugu”

Bai, jakina, ULMA Taldeko Kontseilu Errektoreko kidea izan nintzen heinean, batzordekide aritu behar izan bainuen Fundazioaren patronatuaren batzordean. Bere eginkizuna da babesa ematea ekonomia sozialean, hezkuntza eta prestakuntzan –orokorrean eta sozio-kooperatiboan–, jarduera kultural, sozial eta asistentzialetan, lankidetzan, jarduera berrien sustapenean eta interes enpresarial eta edo estrategikoa duten jardueretan, eta, ondorioz, lanpostu berrien sorreran. Hori guztia taldearen Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoak eta Negozio bakoitzaren salmenten %0,08 kudeatuz egiten da. Gainera, Fundazioak Lansarien Elkartasunerako Fondoa kudatzen du, eta hori gure Taldeak elkartasunerako sortu dituen mekanismoetako da, arazo ekonomikoak sortuz gero bazkidearen ordainsariaren eragin negatiboa %50era arte murrizteko helburuarekin. Negozio bakoitzak ekitaldi bakoitzeko emaitza positibo gordinen %3 ematen du fondo horretarako. Gure Taldearen historian zehar zerbait nabarmendu behar bada hain zuzen ere jarduera berriak ateratzeko dinamismoa da. Hori ezaugarri diferentziala da, MCC barruan gure Taldeari nortasun propioa ematen diona, eta galdu behar ez dugun zera da.



JOXE RAMÓN AXPE
ULMA Forja

“Fundazioaren funtzioari buruz ezjakintasun orokorra dago”

Nire ustez, ULMAko kolektiboan ezjakintasun handia dago Fundazioaren eginkizunaren eta rolaen inguruan. Oro har, jendeak ezagutzen ditu HKSFen bidez ematen diren laguntzak eta ekarpenak, kooperatibetako Batzarretan eta Taldearen Batzar Orokorrean azaltzen eta onartzen direlako, baina ez ditu laguntza horiek Fundazioarekin lotzen. Horrez gain, Fundazioak jendeak ezagutzen ez dituen beste hainbat eginkizun ditu. Nire iritziz, bereziki lantzen diren atalak egokiak dira: Sustapen kooperatiboa, Prestakuntza, lankidetzeta, Heziketa, Ikerketa, Garapena eta Sustapen sozio-kulturala.



MARTA BALANZATEGUI
ULMA Handling Systems

“Oro har, bai ezagutzen dudala bere funtzioa”

Oro har badakit zein den ULMA Fundazioaren helburua eta gure ingurureko hainbat erakunderi egiten dien ekarpena, horien artean kirol erakundeak, sozialak, kulturalak... Ematen dituen laguntzak banatzeko orain arte erabili den irizpidea egokia dela uste dut, eta, bereziki bat nabarmentzekotan, birgizarteratzerazuzendutako kausa humanitario bat lantzen duten elkarteak nabarmenduko nituzke.



ELIAS ELORZA
ULMA Hormigón Polímero

“Ez dakit zein erakundetara doazen laguntzak”

ULMA Fundazioa gure taldean Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoak (HKSF) banatzeko eratu den organoa da. Ez dakit zehazki HKSFen zenbatekoak eta hartzaileak zein diren. Bakarrik dakit ekitaldi bakoitza ixterakoan banatzen direla, eta urteroko Batzar Orokorrean aurreko ekitaldiko banaketaren datuak eta hurrengorako proposamenak aurkezten dizkigutela. Nire ustez, bultzatu behar litzateke prestakuntza, unibertsitateak, bere ikerketa laborategiak, bitartekoak eta ekipamenduak, ikasleentzako prestakuntza bereziak esperimenduak diseinatzeko (hori oso arrunta da Japonian eta beste hainbat herrialdetan). Funtsean, gure kooperatiben eta, oro har, gizartearen etorkizuna ongi presatutako gure ikasleena izango da.



IMANOL ELORZA
ULMA Packaging

“Bazkideentzako aholkulari fiskaleko zerbitzua sartu zezakeen”

Bai, ULMA Fundazioa Taldeko kooperatibek Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoari (HKSF) eta, besteak beste, Sustapenen eta Lansarien Elkartasunerako Fondoei ematen dizkieten baliabideak kudeatzeko erakundea da. Ekarpentzen horiek aurretiaz ezarritako irizpideen arabera banatzen ditu. HKSFari dagokionez, erakunde solidario, kultural edo kirolen inguruko artean banatzen dira ekarpenak, eta, Kooperatiben arteko Heziketa eta Sustapen Fondoari dagokionez (KHSF), Taldean beharra duten kooperatiben artean banatzen da, Sustapen Fondoaren eta Lansarien Elkartasunerako Fondoaren bidez. Lehenengo artean daude eskualdeko GKE-ei, kultur erakundeei edota kirol erakundeei egindako ekarpenak. Irabazi asmorik gabeko erakunde horiek finantzatzearekin guztiz ados banago ere, Taldeko bazkide eta langile guztiei zuzendutako jardueren edo zerbitzuen atal bat gehitu behar litzatekeela pentsatzen dut. Esaterako, aholkularitza fiskalerako zerbitzu bat jar liteke, Errenta Aitorpenari, dohaintzei eta antzekoei buruzko aholkularitza emateko.



Morutegi gaztelua

Dorrea Lautadan



● BIDAIA GIDA

Iristeko: Araia, N-1 errepidearen albo batean, Agurain eta Altsasu herrien artean.

Denbora: gazteluko oinera iristeko 40 min., 15 min. gehiago igotzeko.

Aholkua: dorrera igotzeko hainbat zailtasun daude, eta horiek areagotu egiten dira jaisterakoan. Zoru arriskutsuan katuka igo behar da, eta esperientziarik izan ezean hobe da ez igotzea.

Altzaniako basoetan eta Aizkorriko bide historikoen barna, harkaitz zorrotz batean gaztelu zahar baten harresiak daude. Arabako Lautadako pasabideak zaintzeko eraiki zen, hariztiz inguratutako paisaia eder batean. Oraindik ez dago oso argi nork eraiki zuen harkaitzeko gaztelua, bai, ordea, historian zehar bete dituen eginkizunetako zenbait. Aratzeko inguruen azpian, haitz ikusgarri batetik lur lau arabarra eta San Adriango galtzadak gurutzatzen dituen basoak mendean dituela, bidelapurten eraso etengabeetatik zaindu eta babestu egin zituen galtzadan zein Lautadako bide nagusian ibiltzen ziren bidaiariak. Gainera, Altzaniako mendietako pasabideak kontrolatzen dituen Iruñeko erresumaren

defentsa ere bazen. Araia herri xarmagarriaren gainean aurkitzen dugu, eta bertatik abiatuko gara mendialdera dagoen aldetik, non Ajuria fabrikako instalazio zaharrak ikusiko ditugun. Fabrika aldera abiatzen gara, berrehun metro lehenago dagoen bide batean gora, San Migeleko eta Allarteko bideak adierazten dituen markaraino. Morutegira doan bideak Ajuria industri establezimendua bisitatzeko aukera ematen digu: bertan fabrikatu ziren golde eta traktore, baita lurrin ibilgailu bat ere. Fabrikaren gainetik, pista asfaltatuta dago baserri bateraino, baina iritsi aurretik eskuinetara hartuko dugu, San Migeleko balizari jarraiki. Sigisaga pare bat saihets daitezke bidezidor zuzen batetik, baina

bi alternatibetatik edozeinek ahalegintxo eskatuko digu. San Migeleko haitzaren oinera iritsi eta, burdin hesia gurutzatuta, Allarteko bidexkak zuzen jarraitzen du. Gure urratsek, ordea, pistatik jarraituko dute. San Migeleko harrobi ondoko bide lau laburraren ondotik, pistak behera egiten du eta, berehala, mendi mazela luzea eta iparralderako maldatxoia igo eta gero, Morutegiko harkaitza inguratzen duten larretara iritsiko gara. Harresira hegoalde baina ezin da igo, harizti gainean dauden belardietatik oina inguratuz. Gero bi kanal piko txiki igo behar dira, harresi kubikoaren alboaren azpitik sartu eta dorrearen alde eraitzira ailegatzeko. Bertan hormak, bi alde zuzen eta

beste erdizirkular bat baino ez dira geratzen, baina talaiatik zehatz-mehatz Lautada osoa ikusten da. Irudika dezagun zer zelatatzen zuten Erdi Aroko gizon-emakumeek garaiera horretatik.



! **BISITA; Ajuria fabrika zaharra**

Bidearen hasieran gordetzen dira Arabako lehenengo burdin fabrikaren aztarnak. Burdinola zahar batean du jatorria, eta hango mailua Araiaiko Olazar parkean ikus daiteke gaur egun, Ajuriaiko galdategiak bizia eman zion herriari, Penintsulako sail guztiak landu zituen nekazaritzako makineria fabrikatuz. Oraindik kontserbatzen da San Migeleko bide ondoan, egun txakurtegi bihurtuta, lehen ikaztegietakoa eraikina, adreiluzko tximinia ederra eta industri pabiloiak, nahiko abandonatuta. Olazar parkearen ondoan, Juanjo Urrearen Uraren Poesia izeneko eskultura aldamenean duela, Zadorrako emariarekin plantari energia ematen zion indarretxea dago, oraindik ere lan egiteko moduan.



profila



Elias Elorza

ULMA Hormigón Polímero.

Zer duzu gustukoen zure lanean? Okupatuta egotea. Gauza berriak egin ahal izatea. Lanaren bilakaera ikustea, non huts egin dudana begiratzea, esperimentatzea eta probak edo ikerketa lanak egin ondoren saiakuntzak egitea... Azkenean, zure hondar aleak gizarteari, industri garapenari eta, ondorioz, bizitza maila hobetzeari laguntzen diola ikustea.

Zer gustatzen zaizu denbora librean egitea? Anarkikoa naiz nire denbora librearen aplikazioan, eszentrikoa. Mendian pasean

galtzen naiz, baratzean pixka bat jardun eta, gainerakoan, guztiok egiten ditugun gauza arruntak. Goizeko edo gaueko ibilerak ditut gustuko, mendi magaletara igo eta naturari erreparatzea, batez ere udaberrian, isilik, arren borroka lurralde menderatzeko edo emea bereganatzeko... Natura gordinaren zalea naiz, floraren zalea, katastrofe klimatologiko eta/edo nahita eragindako baten ondoren naturak indarberritzeko duen indarra... animaliak miresten ditut egunero hainbat eta hainbat oztopo gainditu eta biziari azken uneraino eusten diotenean, gizakiok ez bezala, gu deprimitu eta lur jota geratzen baikara; animaliek, berriz, ehizatze eta ehizatuak ez izateko argitasuna dute, bizirauteko sena. Natura bertatik bertara dugun aberastasuna da, eta ez dugu behar bezala preziatzen.

Bizitzak zer erakutsi dizu? Borrokatzen, lanak planifikatzen, planteatutako helburuen bila joaten, besteen iritzia errespetatzen, plurala eta buruaskia izaten, gerta

daitezkeen gorabeherak eta estualdiak gainditzen, unean-unean daukazunarekin inprobisatzen...

Zer deritzozu aldaketa klimatikoari? Ematen diren datuen arabera, badirudi lurraren beroketa egia dela, ebidentzia bat. Urtearteko batez besteko tenperatura gero eta altuagoa da, batez ere ipar hemisferioan, itsasoa berotu egin da, espezieak goiko latitudeetan geratzen ari dira, glaziarrek desagertzen ari dira... eta erdialdeko latitudeetan dauden herrialdeak kezkatuta daude; logikoa da, baina hotzez egoten diren iparraldeko herrialdeak pozik daude, ez dutelako berokuntzarako hainbeste energiarik behar, uztak oparagoak izango direlako edo kostu gutxiago izango dutelako. Kontuan har dezagun pertsona gehiago hiltzen dela hotzak beroak baino. Horrelako dilemetan, beti bezala, batek aldeko eta kontrako aldeak jarri behar ditu balantzan analisia egiteko, baina kontua da aurki daitezkeen informazioa, jatorriaren arabera, interesatua izan daiteke-

ela, eta horrek zalantza sortzen ditu elementuak balantzean jartzeko. Nik gomendatuko nuke gutako bakoitzak iraunkortasunaren eta praktika onen inguruko hainbat oinarriko printzipio aplikatzea. Ez dezagun ingurumena kalte-tutuko duten gehiegikeriak egin. Atzera begiratu gero, eta gertuko historian klimari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu orain dela 200-300 urte (1700.-1800. urteak) klima oso epel eta atsegina zela. Bikingoen iparretik hegorako inbasioaren garaian, ordea, izoztetik eta horren ondorioz zuten gosetik ihesi etorri ziren. Gaur egun, gorabehera meteorologiko bat gertatzen den bakoitzean denok pentsatzen dugu aldaketa klimatikoa gainean dugula. Gogoratzen dut nola 80ko urteetan, sanferminetako astearekin bat eginda, soldatzeko babes-teko elementuak ezin zirela jantzi, beroa ikaragarria zelako, eta arratsaldean ezin zela soldatzen lan egin, haize sahararra sartu zelako; kanpoan 38 gradu inguru izango genituen, eta lantegi barruan 45 gradu baino gehiago.

ERRETIROA HARTU DUTENAK: ULMA Taldean 2007ko maiatzaren 1etik abuztuaren 30era erretiroa hartu dutenak.



José Luis Madinagoitia



José Antonio Amundarain



Rafael Lens



José Ignacio Zabaleta



Julián Madina

*Eskerrik asko guztioi,
eta goza dezazuela!
Zorionak*

**ANIMATU ETA BIDALI
ZURE IDEIAK;
begira@ulma.es**

Eta gainera, beti bezala, gure Iradokizun Kutxa ere badugu, zuen ideia eta iritzia jasotzeko prest;

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Garagaltza Auzoa 51 -
P. K. 22.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref.: Begira
Email: begira@ulma.es

200 argazkitik gora jasota

!!

Eskerrik asko

Herri zein hiri ezberdinetako 200 argazkitik gora jaso ditugu. Hurrengo egutegietarako gai berriren bat proposatu nahi duzula, bidali zure iradokizunak e-mailez: begira@ulma.es

Eskerrik asko zure argazkiekin parte hartzeagatik!

Hartutako
irudi
guztien
artean

hainbat

sari

banatuko dira



Eskerrik asko
zure argazkiek
bidaltzeagatik

